2. ARIKETA

AZA, S.A. sozietateak X1/12/31an honako balantzea aurkeztu du mozkinaren gaineko zerga aplikatu aurretik:

AKTIBOA	X1/12/31 MGZ aurretik	X1/12/31 Ondoren
AKTIBO EZ KORRONTEA	**3.024.000**	3.006.870
Ibilgetu materiala	**2.600.000**	2.600.000
Eraikuntzak	1.500.000	
Makinaria	1.050.000	
Altzariak	50.000	
ELuz.ko finantza inbertsioak	**400.000**	400.000
Geroratutako zergagatik aktiboak	**24.000**	6870
AKTIBO KORRONTEA	**1.476.000**	1.463.130
Izakinak	**576.000**	576.000
ELab.ko finantza inbertsioak	**200.000**	200.000
Zordunak	**600.000**	587.130
Bezeroak	*585.000*	
OP Zorduna	*15.000*	0
(4709) Zerga konkentagatik Aktiboa		2.130
Diruzaintza	**100.000**	100.000
GUZTIRA	**4.500.000**	4.470.000

PASIBOA	X1/12/31 MGZ aurretik	X1/12/31 Ondoren
ONDARE GARBIA	**3.300.000**	3.270.000
Fondo Propioak	**3.200.000**	3.170.000
Kapitala	1.400.000	1.400.000
Erreserbak	1.600.000	1.600.000
Zerga aurreko emaitza	200.000	170.000
Dirulaguntzak	**100.000**	100.000
PASIBO EZ KORRONTEA	**800.000**	800.000
Maileguak	800.000	
Zerga geroratuagatik pasiboak	**0**	
PASIBO KORRONTEA	**400.000**	400.000
Hornitzaileak	400.000	
GUZTIRA	**4.500.000**	4.470.000

a) X1 ekitaldiko zerga aurreko emaitza kontablea 200.000€
b) AZA, SAri %24ko zerga tasa dagokio mozkinaren gaineko zergaren kalkulurako
c) X1 ekitaldian makina zahar baten salmentagatik 25.000€ko mozkina kontabilizatu du, fiskalki guztiz salbuetsita dagoena.
d) X1/01/01ean 150.000€ko makina bat eskuratu du. Kontableki 4 urteko bizitza erabilgarria izango du ~~eta 10.000€ko ondare balioa~~. Fiskalki, taula fiskalen arabera gehienez kostu historikoaren %20a amortizatu daiteke.
e) X0/11/15ean enpresak 50.000€ko zorra zuen bezero baten balio narriadura kontabilizatu zuen. Balio narriadura hau X1 ekitaldian da fiskalki erabilgarria.
f) Balantzean ageri diren zerga geroratuagatik aktiboen 12.000€, aurreko ekitaldietako oinarri zergagarri negatiboenak dira.
g) X1 ekitaldian 12.000€ko kenkariak aplikatu ahal izango dira egindako inbertsio batzuk direla eta.
h) Enpresak gehienez kuotaren %35eko kenkariak erabili ahal izango ditu.
i) X1ean jasandako atxikipenak: 15.000€.

ESKATZEN DA

1. **Likidazio fiskala**
2. **X1 ekitaldiko mozkinaren gaineko zergari dagozkion idazpenak**
3. **Balantzea eguneratu zergaren eraginarekin**

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea